

7. Funtzesko baliabideak

Lehenengo eta behin, hasieran ziur gastu-kopuru handia izango dugula eta zorrak ordaindu beharko ditugula. Baina, denbora igaro ondoren, zorrak joan egingo dira eta gastuak gutxitu egingo dira. Hori dela eta, kostu txikiagoan ekoizteko ahalmena izango dugu, eta horrek bezero gehiago lortuko dizkigu eta enpresei eta etorkizuneko bezeroei arreta deituko die.

Giza baliabideak:

Auritzek finantza-arloko kudeaketa egingo du ekonomian graduatua delako. Enpresari eragin diezaioketen estatu mailako moneta- eta zerga-politikei buruzko informazioa eta aholkularitza emango du baita.

Enekok web orrialdea eta sare sozialak bideratuko ditu marketin ezagutza handiak dituelako eta oso sortzailea delako, beti ideiak berriak burura etortzen zaizkio.

Sebastianek harremanak eramango ditu, hau da, berak gure lankiden arazoak entzungo ditu eta konponbideak emango ditu arazo hoiei. Baita harreman positiboak sortu eta mantenduko ditu komunikabideekin, bezeroekin, hornitzaileekin eta, oro har, komunitatearekin.

Aimarrek lekuan bertan eraikuntza gainbegiratu du, eguneroko jarduerak koordinatuz eta epeak eta estandarrak betetzen direla ziurtatuz, hau da, obrak zelan doazen ikusi.

Baliabide fisikoak:

Lehenik eta behin, funtsezkoa izango zen funtsezko makinak erostea, hala nola, gruak, ... , gure proiektua gauzatzeko. Gainera, ekipo hori baldintza onenetan mantenduko dugu, mantentze-programa erregular baten bidez, funtsezkoa baita errendimendua eta iraunkortasuna bermatzeko. Gero ofizina bat izango beharko genuke, langile guztion artean koordinatzeko eta baita bezeroen arreta eukitzeko. Azkenik, bildegi bat eukingo genuke, materiala gordetzeko eta biltegitratzeko.

Baliabide finantzioak:

Mozkinetan edo kapital akzionarioan parte hartzearen truke zure enpresa finantzatzeko interesa duten inbertitzaile pribatuak bilatuko genuken edo bankuari kredituak eskatu gure ideia aurkeztuz.